

PRENTSA OHARRA

Hidrogeno berdearen I+G bizkortzeko aliantza teknologikoa

- *Tekniker H2Greem startup espainiarrarekin lankidetzan ari da sektorearen erronkei erantzuteko.*
- *Zentro teknologikoak elektrolizagailuen konfigurazio berrien errendimendua aztertzen du enpresak fabrikatutako saiakuntza-banku batean.*
- *Lankidetzak Teknikerren hidrogenoaren aldeko apustua bultzatzen du. Tekniker beste elkarte eta programa batzuetako bazkide ere bada, esaterako, Hidrogenoaren Euskal Korridorekoa.*

[Eibar, 2023ko maiatzaren 4a] – Industria deskarbonizatzen lagunduko duten teknologia jasangarri berrien garapenean funtsezko aliatu teknologiko gisa duen posizioa indartzeko asmoz, **Teknikerrek** lankidetzak estrategikoa du **H2Greem** startup espainiarrarekin hidrogeno berdearen sorkuntzarekin lotutako teknologiak eta produktuak lantzeko.

Aliantza estrategiko horrek aukera ematen die bi eragileei baliabideak eta ezagutzak partekatu eta sektoreko erronkei eta beharrei erantzuteko, energiaren merkatuan hidrogenoa ekoizteko teknologia berrien aplikazioa erraztu eta bizkortzeko helburuarekin.

Aliantza honen helburu nagusia protoiak trukatzeko mintzen elektrolizagailuen (PEM, ingelesezko izenen siglak) ikerketa eta eskalatze industrialak bultzatzea da, hidrogeno berdea prezio lehiakorrean sortzeko.

Elektrolizagailuak hidrogenoa prozesu kimiko (elektrolisi) baten bidez sortzea ahalbidetzen duten gailuak dira. Elektrizitatea erabiliz ura osatzen duten hidrogeno eta oxigeno molekulak bereizteko gai dira.

PEM teknologiak abantaila handiak ditu, esaterako, lortzen duen hidrogenoaren garbitasuna eta energia berriztagarrien instalazioetan integrazteko erraztasuna.

Teknikerrek H2Greem-ek garatutako hainbat ekipamendu ditu, materialak eta osagaiak aztertzeko eta energia sortzeko sistema horiek fabrikatzeko konbinaziorik onena aurkitzeko balio dutenak.

"Baldintza errealetan PEM elektrolizagailuen konfigurazio berrien errendimendua aztertzen dugu H2Greem-ek fabrikatutako 1 kW-eko potentziako entsegu-banku batean. Gainera, sorgailuaren gainerako sistemak eta kontrol-algoritmoak optimizatzeko, 5 kW-ko elektrolizagailu bat dugu, startupak sortutakoa", azaldu du Eva Gutierrez hidrogenoaren teknologien esparruan aditua den Teknikerreko ikertzaileak.

H2Greem Enagas-en (Enagás Emprnde) berrikuntza eta barne-ekintzailtzaren arloan sortutako enpresa teknologikoa da, eta PEM teknologian oinarritutako hidrogeno-sorgailuak garatu, fabrikatu eta merkaturatzen ditu. PEM elektrolizagailuen soluzio integrala proposatzeko gai den teknologia propioa duen Espainiako fabrikatzaile bakarra da.

Merkatura egokitzea

Teknikerrek H2Greem-ekin duen lankidetzak bultzada ematen dio Teknikerrek hidrogeno berdearen alde egindako apustuari, eta aukera ematen dio zentro teknologikoari merkatuaren premiak zuzenean ezagutzeko eta, ondorioz, bere ikerketa-jarduera egokitzeko.

Teknikerren apustuak hainbat jarduera hartzen ditu hidrogeno berdearen balio-kate osoan: sorrera, biltegitratzea, garraioa eta mugikortasun- eta industria-arloko aplikazioak.

"Sektorean eta sektorearekin lotutako teknologietan dugun ezagutzak aukera ematen digu, besteak beste, hidrogeno berdea sortzeko energia berriztagarriko instalazio hibridoekin elektrolizagailuak integratzearen bideragarritasuna aztertzeko, hidrogenoa biltegitratzeko eta garraiatzeko likido organiko berriak ikertzeko, edo hidrogeno-sorgailuak fabrikatzeko material bateragarriak zein diren zehazteko", adierazi du Eva Gutierrezek.

Tekniker Petronor buru duen Hidrogenoaren Euskal Korridorearen (BH2C) bazkidea da; eta Hydrogen Europe Research taldeko eta Euskadiko Energia Klusterraren Hidrogenoaren Sektoreko Foroko hidrogeno-lantaldeko kide aktiboa da. Hidrogenoaren Espainiako Elkarteko eta Hidrogenoaren eta Erregai Pilen Espainiako Plataforma Teknologikoko (PTE-HPC) kidea da.

Arlo horretan dituen ezagutzek Europako, nazioko eta tokiko finantzaketa publikoko hainbat proiektutan eta industriarekin zuzeneko lankidetzak duten ekimenetan lan egitera eraman dute.

H2Greem-i buruz

H2Greem enpresak hidrogenoaren teknologietan erreferente den talde ekintzaile bat du, Mario Carrero buru duena. Bere jarduerak hidrogenoaren balio-kate osoa estaltzen du, proiektuaren garapenetik eta kokalekuaren hautaketatik hasi eta ingeniaritza, produktuaren integrazio, in situ instalazio, eragiketa eta mantentze-lanetaraino.

Informazio gehiago izateko:

GUK ► **Unai Macias** unai@guk.eus | Tel. 690 212 067